


HAUR ETA NERABE GAIXOEN HEZKUNTZA ESKUBIDE ETA BEHARRAK

1. Haur eta nerabe gaixo orok bere hezkuntza prozesuaren jarraipena jasotzeko eskubidea dauka, ospitalean zein bere etxean, tratamendua atzerriko herrialde batean jaso arren.
2. Hezkuntza prozesu honen jarraipenaren xedea haur eta nerabe gaixoen ikasketa prozesua aurrera doala bermatzea da, ikasle gisa daukaten rola mantentzeko helburuarekin.
3. Ospitale-hezkuntzak haur eta nerabeen elkarte bat sortzen du, egunerokotasuna normalizatuz. Ospitaleko hezkuntza ikasgela bat bezala antolatu beharko da, taldeko eta banakako irakaskuntzarekin, bai ikasgelan bai haurraren gelan
4. Ospitale-hezkuntza zein etxeko hezkuntza haur edo nerabeen behar eta gaitasunetara moldatu beharko da, haren erreferentzia ikastetxearekin elkarlanean.
5. Ingurua eta ikasketa materialak haur eta nerabe gaixoen beharretara moldatu beharko dira. Komunikaziorako teknologia berriak erabili beharko dira haien isolamendua ekiditzeko.
6. Irakaskuntza curriculum arrunteko berariazko edukia baino haratago joango da, gaixotasun eta ospitalizazioaren ondorioz sortutako beharrekin lotura duten gaiak jorratuz. Mota ugarietako irakaskuntza metodologia eta tresnak erabili beharko dira.
7. Ospitaleko zein etxeko heziketa irakasle adituen eskutik jasoko da, horretarako ikasketa bereziak bete dituztenak.
8. Hezkuntza prozesuan parte hartuko duten adituak haur edo nerabe gaixoa tratatuko duen disziplina anitzeko taldearen parte izango dira, eta haren eta bere erreferentzia ikastetxearen arteko zubia sortuko dute.
9. Gurasoek haien seme-alaba gaixoei hezkuntza prozesuaren jarraipena jasotzeko daukaten eskubidearen eta beteko duten hezkuntza programaren inguruko informazioa jaso behar dute. Haren parte aktibo eta erantzule izango dira.
10. Ikaslearen osotasuna errespetatuko da, bere mediku-konfidentzialtasuna eta bere usteekiko errespetua barne.

Estatuaren HOPE Gutuna:
HOPE Batzar Nagusiak onartua,
Bartzelonan – 2000ko maiatzaren 20an

HOPEn Batzar Nagusian onartutako zuzenketa,
Vienan – 2016ko maiatzaren 13a /2022ko maiatzaren 19an

(Basque version of the Charter of HOPE)



www.hospitalteachers.eu